BIZITEGI ERAIKINA — HERNANI 7

D MAILA



Egilea eta data: Antonio Cortazar; 1868

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi 1891ko jasodura mantsardatu bat. Harlangaitzezko fatxada entokatua, ezkerraldeko baoan hormigoizko begiratokia duena (1913koa) –1931n zabaldu egin zen teilatupearen altueran–. Behe oina hareharriz xaflatuta berritu da (nolabaiteko erliebea du baoetako azpaduran eta zokaloan). Jatorrizko proiektua komuna da Hernani 9rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. goi oina, mantsardatua.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: elementu moldekatuak; begiratokia.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin loturikoak.